



# Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

Pacto Social  
por la Vivienda

2 0 2 2 □ 2 0 3 6

Etxebizitza-eskubidearen  
benetako eraketa bizkortzeko  
konpromiso partekatua

ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZITZA  
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA  
Y TRANSPORTES



Etxebizitzaren  
aldeko Itun Soziala  
Pacto Social  
por la Vivienda  
2 0 2 2 • 2 0 3 6



# aurkibidea


orrialdea

Sarrera	1.		3
Izaera eta helmena	2.		6
Euskadiko etxebizitzari buruzko diagnostikoaren eta prospekzioaren elementu nagusiak	3.		8
Helburua eta xede kuantitatiboak	4.		11
Lehentasunezko jarduera-ildo eta -jarraibideak	5.		17
Partaidetza-, lankidetz- eta gobernantza-eredua	6.		24

---

ERANSKINAK	7.		28
<b>1. Eranskina</b> Ezarritako xede kuantitatibo buruzko azalpen-koadroak			
<b>2. Eranskina.</b> Ezarritako helburu kuantitatiboetarako lurraldekako helburuei buruzko azalpen-taulak			

# Sarrera 1.



# Etxebizitza bat izateko eskubidea bizi-premia da



Euskadiko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen sarreran esaten den bezala, "etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzeko, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzeko, bizipenak sendeekin eta lagunekin partekatuz, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-azitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez.

Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzea bitzita duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari". Halaber, sarrera horren arabera, duela zenbait hamarkadatik, nazioarteko zenbait adostasun- eta lankidetzatresnatan (esaterako, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna edo, berrikiago, Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030eko Agenda), etxebizitzaren garrantzi soziala azpimarratzen da eta pertsonen eta haien familien bizi-baldintzak hobetzearekin eta gizarte-bazterketa saihestu eta gainditzeko posibilitatearekin lotzen da.

Printzipio gidariei dagokienez, 3/2015 Legeak hauek nabarmentzen ditu: etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko eskubidea bermatzeko, lankidetzan eta koordinatuta aritzea botere publiko guztiak; etxebizitzarako eskubidearen eraginkortasunaren inguruko ekimenetan jarduketara publikoak eta pribatuak koherenteak izatea eta planifikatuta eta programatuta egotea; eta lurralde-koherentsia egotea sustapen- eta birgaikuntza-neurrien aurreikuspen eta aplikazioaren banaketa orekatuan, eta,

aldi berean, etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien eskaintza zabal eta behar bestekoa lortzea, horretarako udal-plangintza eta udalaz gaindikoa etxebizitza-politikarekin koordinatuta.

Beste printzipio gidari hauek ere ezartzen dira: herritarrek etxebizitzari buruzko politika publikoak formulatzeko prozesuan benetan parte hartzea eta lankidetzan jardutea; dagoen etxebizitzaren eta bizitoki publiko nahiz pribatuen parkea kontserbatu, birgaitu, eraberritu eta berritu dadin bultzatzea eta sustatzea; eta etxebizitza eta zuzkidura-bizitokien inguruko ekintza guztietan ingurumenaren, paisaiaren eta kulturaren balioa aintzat har dadin sustatzea, ekintza horiek jasangarritasunaren, baliabide naturalen ekonomiaren eta energia aurreztearen irizpideak izan beharko dituztelarik gidari.

Helburu eta printzipio horiek garbi erakusten dute gizarteak euskal etxebizitza-politika berritzailea, asmo handikoa eta bikain kudeatua ezartzeko konpromisoa hartu duela, eta, konpromiso horretan, etxebizitza dela babes eta koherentsia sozialaren ardatz nagusietako bat, beste dimentsio batzuk ere barne hartuz; esaterako, ingurumen-jasangarritasuna eta enplegua eta oparotasuna sortzeko. Errealitatean isla dadin, konpromiso horrek beharrezko baliabideak dituen eta denboran koherentea den euskal etxebizitza-politika bat behar du, ahalik eta eragin handiena eta ongizate komuna lortzeko.

Ikuspegi hori lortzeko, ahalik eta adostasun politiko eta sozial handiena behar da. Alde batetik, COVID-19aren pandemiak argi eta garbi erakutsi ditu lankidetzak eragin sakoneko krisi koiuntural bati aurre egiteko duen balioa. Bestetik, egoera globala eta euskalduna da, eta epe ertain eta luzerako erronka erabakigarriak dakartza, eta haiei aurre egiteko ezinbestekoak dira adostasuna eta lankidetzak.

Beharbada erronka horietatik garrantzitsuenak larraldi klimatikoarena da. Erronka horrek ekonomia deskarbonizatura are bizkorrago aldatzera behartzen gaitu, eta hori gizarte- eta enpresa-sektore ahulenentzako laguntzarekin bateragarri egin behar dugu, trantsizio hori ekitatiboa dela eta inor atzean geratzen ez dela bermatzeko.

Hona hemen beste erronka garrantzitsu batzuk: demografikoa (biztanleria bizkor zahartuz doa, eta mundu-mailan migratzaileak presio handia egiten ari dira), ekonomia teknologikoagora eta digitalizatuagora aldatzea, eta herritarrek partaidetza handiagoa nahi izatea eta administrazio publiko gardenagoak eskatzea, hobeto kudeatuak eta komunitateari balio handiagoa emateko gai direnak.

Erronka erabakigarri horiek eragingarbia dute etxebizitzan. Euskadik bizitzako behar berri eta aldakorretara egokituko diren etxebizitza jasangarriagoak behar ditu. Baina, batez ere, arrazoizko prezioa alokairuaren eskaintza publikoa handitu behar du, etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkorra izan dadin.

Horrez gain, erronka horiek guztiak erronka konplexuak dira, eta haiei ezin zaie irtenbide erraz eta berehalakorik eman. Etxebizitzaren euskal ekosistemari hura osatzen duten eragileen sortze- eta ekintza-ahalmen osoa aplikatu behar diogu. Hobeto diseinatu behar da, hobeto planifikatu, eta batera jardun asmo handiko helburuak lortzeko.

Horretatik ondorioztatzen da Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean (2022-2036) ezinbesteko dena. Itun horretan, helburu handiak eta jarduera-ildo komunak ezarri nahi dira, eta, batez ere, Itun bizia izan nahi du. Izan ere, hainbat ikuspegitik aurrean dugun egoera konplexu eta ziurgabeak erantzun zehatzak doituz joatera behartuko gaitu, nahiz eta beti epe luzerako xedeei begiratuko diegun.

Itun horrek erantzuna ematen dio Eusko Legebiltzarrak 2021eko abenduaren 15ean hartutako ebazpenari. Ebazpen horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion *etxebizitzaren inguruko itun sozial bat sinatzea* datozen urteetarako, *politika iraunkor eta partekatua baten garapenean aurrera egingo duena, epe luzera irauteko asmoarekin, etxebizitzaren arloan lan egiten duten eragile guztiak integratuz, bi erronka nagusiri aurre egiteko: arrazoizko prezioa alokairuko etxebizitzaren parkea bikoiztea eta eraikin eta etxebizitza birgaituen kopuruan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia ematea.*

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eskerrak eman nahi dizkie Ituna sinatu duten eragileei, beren eskuzabaltasunagatik.

Hasiera-hasieratik ekimenean konfiantza izan zutelako, eta Itunaren ondorioz egin beharko den lanean modu aktiboan parte hartzeko prest agertu direlako. Horren ordainetan, eskuzabaltasun-maila berari eusteko eta lidergo-lanetan dagokizun bikaintasuna lortzen ahalegintzeko konpromisoa hartuko dugu.

Ziur gaude bidaia honek merezi izango duela eta, guztion artean, modu esanguratsuagoan egingo dugula aurrera ezarri ditugun xede komunetan.

Eskerrik asko.

Iñaki Arriola  
Lurralde Plangintza, Etxebizitza  
eta Garraio Sailburua

Izaera eta helmena 2.

The image features a solid teal background. In the center, the text "Izaera eta helmena 2." is written in a white, sans-serif font. Below the text, there is a series of thin, white, overlapping lines that form an abstract, geometric pattern, resembling a stylized mountain range or a series of intersecting planes.

Eragile sinatzaileontzat, Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2036) dokumentua sinatetik askoz ere harago doan zerbait da. Bertan, 2022-2036 aldirako xede kuantitatibo partekatu handiak ezartzen dira, baita haiek erdiesteko jarduera-ildo eta -jarraibide batzuk ere.

Adostasun- eta lankidetzatresna gisa ikusten dugun Ituna.

Hark hauek egiteko aukera eman behar digu batez ere:

Proiektu  
eraldatzaileak  
zehaztea eta  
sustatzea

➤ Proiektu eraldatzaileak zehaztea eta sustatzea, adostasun-maila handia ez ezik, eragile anitzeko lankidetzak ere ezartzeko, euskal gizartearentzat eragin handiagoa izango duten asmo handiagoko proiektuei euste aldera.

Estrategia  
partekatua

➤ Aldizka, ebaluazioa egitea eta ikuspegi estrategiko berria ematea, batera.

Hori dela eta, Itunak arreta berezia ematen dio partaidetza-, lankidetzatresna eta gobernantza-ereduari, eta Etxebizitzaren Foroa sortzea ezartzen du, eragileen partaidetzari egonkortasuna emateko. Eragileak euskal etxebizitza-politikaren elementu tradizionala izan dira, baina, gure ustez, sistematizatu eta formalizatu egin behar dira, baina eragingarriak direla eta balioa ematen dutela ziurtatzeko beharrezko malgutasunari eutsiz.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak segimendua bideratuko du; hartarako adierazleak ezarriko ditu, eta haiek betetzea sustatuko du; eta epe motzeko eta luzeko konpromisoen ebaluazioa balidatuko du, eta Itunari buruzko urteko eta amaierako jardueramemoria bat prestatuko du. Horretarako, Etxebizitzaren Foroaren laguntza jasoko du.



Euskadiko 3.

etxebizitzari buruzko  
diagnostikoaren  
eta prospekzioaren  
elementu nagusiak



# diagnostiko-elementuak

Logikoa denez, Itunaren edukia Euskadiko etxebizitzari buruzko diagnostikoa eta prospekzio partekatua egitean datza. Hona hemen elementu aipagarrienak:

- Demografikoki, mende honetan, euskal biztanleria ia ez da handitu kopuru absolutuetan.
- Argi dago zahartze progresiboaren ibilbidea eta prospekzioa. Lehenengo etxebizitza eskatzen duten etorkizuneko biztanle gazteak urtean % 0,5 baino gutxiago hazi da (7.000 pertsona inguru) batez beste azken 20 urteetan. Demografiaren bilakaera horrekin batera, aldaketa nabarmenak izan dira bizikidetzaren ereduetan, eta, ondorioz, nabarmen murriztu da euskal familien batez besteko tamaina (20 urte eskasetan, 3,1etik 2,4 pertsonara igaro gara); hortaz, biztanleriak egonkortzeko joera badu ere, etxebizitza gehiago beharko dira, baina tipologia desberdinetakoak.
- Lehenengo etxebizitza behar duela dioten familia-kopurua asko murriztu da azken 10 urteetan, eta 59.700 familia ingurutan dago 2021ean.
- Lehenengo etxebizitza behar dutela dioten erdiak baino gehiagok alokairura joko luke soil-soilik. Egoera horren atzean dagoen aldaketa kulturaz gain, badirudi familia horien egoera ekonomiko larria dela, hein handi batean, alokairura jotzearen arrazoia, beharra duten 4 pertsonatik 1etik bakarrik baititu lehenengo etxebizitza eskuratzeko nahikotzat jotzen dituen diru-sarrerak.
- Alokairu babestuaren eskaria 2,6 bider handitu da 2009tik, eta errenta erabilgarriaren eta merkatu librean alokairuko etxebizitzek duten prezioaren arteko desorekari oso lotuta dago. Alokairu babestuko 10 eskaeratik 8 alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren pertsona eta familiei dagozkie gaur egun. Eskari hori ezaugarritzeko funtsezko gakoak etxebizitza babestuaren eskaria osatzen duten pertsona eta familien diru-sarreraren maila eskasa da.
- Euskadiko alokairuko etxebizitzaren parkea txikia da. Etxebizitzaren parkearen % 13 soilik da (Estatuko batezbestekoa baino 5 puntu gutxiago eta autonomia-erkidego dinamikoaren % 12 puntu baino gutxiago); merkatu "estua" omen da, eta, ondorioz, tentsioa eragiten die eskari handieneko arloei, hala nola euskal hiriburu eta metropoli-eremuei eta udalerrirako turistikoari. Nahiz eta badagoen etxebizitza hutsen kopuru jakin bat, haiek aktibatzeak modu mugatua baino ez lioke erantzun egokiari, etxebizitza hutsak behar bezala jaso behar baitu, eta etxebizitza huts kudeagarriaren kopurua 26.132 unitatekoa baita (hazteko asko ez daude merkatuan eskaintzeko moduan, eta udalerrirako txiki eta ertainetan kokatzen dira; alegia, alokairuaren eskaria txikiagoa den tokietan). Azken urteetan, neurri handi batean Euskadiko alokairuaren batez besteko prezioa, eta hilean 717 eurokoa da, eta 805 eurora iristen da batez beste hiriburuetan, 2021eko abenduan.
- Aurreko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzak alokairuko etxebizitza babestuaren parkea bikoiztu du, eta 26.000 etxebizitza baino gehiago izatera pasatu da 2021ean (parke babestuaren heren bat baino gehiago); Biziguneren bidez, 7.200 etxebizitza libre mobilizatu dira etxebizitza lortzeko zailtasun gehien dituzten taldeentzat. Alokairu librearen merkatuan ere eragina du eskariari laguntzeko politikak. Euskadin, 35.000 familia inguruk laguntza edo prestazioaren bat jasotzen dute alokairu librea ordaintzeko. Etxebizitzaren eskubide subjektiboa ia 6.400 familiari aitortu zaie.

**Alokairu babestuaren eskaria 2,6 bider handitu da 2009tik**

**Euskadiko alokairuko etxebizitzaren parkearen % 13 baino ez da**


- Aurrekontu eratorriko gastuaren ahaleginari, alokairurako kenkariari lotutako gastu fiskala gehitu behar zaio. Ahalegin fiskal hori nabarmen handitu da, baina oraindik etxebizitza erostearekin erlazioatutakoa baino hiru bider txikiagoa da. Euskadi da erosketari berrirako kenkariak mantentzen dituen erkidego bakarra da (ez dago trantsiziozko irudirik).
- 2003tik, Euskadiko etxebizitza babestuak kalifikazio iraunkorreko adierazpena du; horrek beste autonomia-erkidegoetatik bereizten du, eta inbertsio publikoa etorkizunean ondare publiko gisa mantentzea bermatzen du.
- Euskadiko etxebizitza-parkea zahar samarra da (batez beste, 46 urte), eta birgaitzeko eta irisgarritasuneko eta energia aurrezteko baldintzetara egokitzeko beharra du. 89.000 familiak baino gehiagok (Euskadiko familien % 10) dute etxebizitza birgaitzeko beharra, eta 3 familiatik 2k behar handia dute. Familia horien diru-sarreraren maila ez da iristen batez besteko euskal familia-errentaren % 60ra.
- Irisgarritasunaren arazoa handituz doa. Ia 120.000 pertsonak adierazi dute zailtasunak dituztela eskailerak igotzeko eta jaisteko, eta 60.000k etxe barruan mugitzeko. Birgaitzeko beharra duten 10 etxetatik 9k ez daukate barrualdea egokituta, eta heren batek edo erdiak eraikinaren elementu komunei edo kanpokoei lotutako askotariko irisgarritasun-arazoak dituzte.
- Bide luzea dago egiteko etxebizitza-parkearen eragingarritasun energetikoaren hobekuntzan. Birgaitzeko beharra duten 10 etxetatik 4tan etxebizitzaren tenperatura hobeto mantentzeko beharrari lotuta dago. Gainera, pobrezia energetikoa gero eta handiagoa da. 12.800 familiak ez zuten berokuntzarik 2019an, eta pertsona askok zailtasunak dituzte neguan etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko.
- Birgaitzeko laguntzen politikak urtean batez beste 10.000 etxebizitza hobetzen lagundu du, eta batez beste 17 milioi euro eman ditu zuzeneko laguntza publikoetan. Programa horien eragin biderkatzailea oso garrantzitsua da, eta, kalkuluen arabera, 14,2 €-ko BPGd sortu dute inbertitutako euro publiko bakoitzeko, eta guztira 6.756 lanpostu sortu edo mantendu ditu (hau da, EAEko biztanle okupatu guztien % 0,7).
- Euskadiko eraikuntzaren sektoreko jarduerari eta enplegu-mailak 2008ko atzeraldi handiaren aurreko egoeratik urrun daude (atzeraldi haren ondorioz, sektoreko 10 establezimendutatik 4 inguru suntsitu ziren). Sektoreak denbora behar izan zuen euskal ekonomia berreskuratze-prozesura batzeko, eta 2018tik aurrera hasi zen nabarmen handitzen balio erantsi sektoriala. Eraikuntzaren sektoreko jarduerari-maila 2010ekoa baino % 30 beherago zegoen 2020an. Sektore horretan, establezimenduen batez besteko dimentsio txikia da nagusi, haien % 95ek 10 lanpostu baino gutxiago baitituzte. Oso sektore maskulinizatua da (% 89), eta batez besteko adina beste ekoizpen-sektore batzuetakoa baino handiagoa da; enplegu autonomoak pisu nabarmena du (% 39), eta eskolatzeko-maila txikia (3 pertsonatik 1etik oinarriko eskolatzeko-maila du). Zailtasun handiak ditu eskulan berria eta espezializatua erakartzeko, merkatuak hala eskatu arren.

Euskadin, 35.000 familia inguruk laguntza edo prestazioren bat jasotzen dute alokairu librean ordaintzeko

89.000 familiak baino gehiagok (Euskadiko familien % 10) dute etxebizitza birgaitzeko beharra

Eraikuntzaren sektoreko jarduerari-maila 2010ekoa baino % 30 beherago zegoen 2020an

Helburua eta xede  
kuantitatiboak 4.



## Ituneko eragileentzat

Haren helburu nagusia da etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea. Etxebizitza duin eta arrazoizko prezioko bat eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometituta baitago Euskadi. Horretarako, ezinbestekoa da etxebizitza-politika adostua, koherentea eta epe luzerakoa izatea, gure gizarte-ereduaren euskarri gisa ikusiko dena.

# helburuak

Helburu nagusi hori 3 xede kuantitatibotan zehazten da, eta xede horiek bideratuko dituzte Itunaren babespean garatzen diren jarduerak:

## 1. Helburu kuantitatiboa

Arrazoizko prezioko alokairuaren eskaintza publikoa Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 5ekoa izatea 2036. urtearen amaieran

## 3. Helburu kuantitatiboa

Eraikin guztien % 1,5eko urteko birgaikuntza-indizetik % 3ra pasatzea, Europako zuzentzarauek eta politikek 2030erako eta 2050erako ezarritako helburuak betetzeko

## 2. Helburu kuantitatiboa

2036an babes publiko iraunkorreko etxebizitzak Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 12 izatea, 2021eko % 7,7arekin alderatuta

## 4. Helburu kuantitatiboa

Talde kaudimenduei etxebizitza libreen eskaintza ahalbidetzea, bai obra berria bai etxebizitza berriak, birgaitze-prozesuak egin ondoren, sustatuz.

## 1. Helburu kuantitatiboa

Arrazoizko prezioko alokairuaren eskaintza publikoa Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 5ekoa izatea 2036. urtearen amaieran

Horrek gaur egungo portzentajea (% 2,9) bikoiztea dakar (26.000 etxebizitza, 2021eko 910.000 etxebizitza nagusiekin alderatuta), eta 50.000koa izango litzateke arrazoizko prezioko alokairuaren eskaintza publikoa (2036rako aurreikusitako 1.000.000 etxebizitza nagusiekin alderatuta).

Alokairuan jarritako arrazoizko prezioko etxebizitzen parke publikoaren ikuspegitik, xede kuantitatibo horren harira 15 urtean ia bikoiztu egingo litzateke 2020an alokairuan jarrita zegoen arrazoizko prezioko etxebizitzen parke publikoa (26.000 etxebizitza baino gehiago), eta eskaintza erabilgarriari beste 24.000 etxebizitza gehituko litzazkioke (19.000 etxebizitza berriak, obra berrikoak eta birgaikuntzakoak izango lirarteke, eta 5.000 etxebizitza hutsa mugitzearen ondoriozkoak).

## 3. Helburu kuantitatiboa

Eraikin guztien % 1,5eko urteko birgaikuntza-indizetik % 3ra pasatzea, Europako zuzentarauek eta politikek 2030erako eta 2050erako ezarritako helburuak betetzeko

Asmo handiko xede kuantitatiboa da, baina benetako behar bati erantzuten dio. Etxebizitzak birgaitzen diharduten eragileek egin beharreko ahaleginari dagokionez, egoera honen ondorioz, gure jarduera-ahalmena bikoiztu behar dugu, eta denboran eutsi behar diogu, datozen 15 urteetan beharrezko baliabide ekonomikoak modu estrukturalean banatuta, bereziki Next Generation UE ekimenaren esparruan salbuespen gisa abiatutako aparteko baliabideak desagertu ondoren.

Horrek esan nahi du, 15 urte hauetan 350.000 etxebizitza birgaitu behar direla (birgaitze-interbentzio motaren bat garatuz).

## 2. Helburu kuantitatiboa

2036an babes publiko iraunkorreko etxebizitzak Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 12 izatea, 2021eko % 7,7arekin alderatuta Euskadi,

Xede horren harira, babes publikoko etxebizitza-parkea 116.000 etxebizitza ingurukoa izango litzateke 2036an.

Kopuru horri arrazoizko prezioko alokairurako proposatutako 24.000 etxebizitzak kenduta, etxebizitza babestuko gaur egungo parkeari beste 18.000 etxebizitza gehituko litzazkioke 2036rako, erabateko jabetzan edo aldi batez erabiltzeko eskubidearekin. Horrela, esku-hartze publikoa duten arrazoizko prezioko etxebizitzen eskaintza osoa 42.000 etxebizitza gehiagokoa izango litzateke datozen 15 urteetan.

## 4. Helburu kuantitatiboa

Talde kaudimenduei etxebizitza libreen eskaintza ahalbidetzea, bai obra berria bai etxebizitza berriak, birgaitze-prozesuak egin ondoren, sustatuz.


Sustapen libreetako nahiz babes publikoko sustapenetako hirigintza-erritmoak eta etxebizitza-beharrak harmoniaz egokitu nahi dira, eskatzaileek egin ditzaketan hautaketak areagotuz, egungo eta etorkizuneko eskaintza zabalduz eta euskal etxebizitzaren merkatuaren moderazioan eragina izanez, eskainitako prezioetan eta kopuruetan.

Eskainitako etxebizitza librea handitzea, bai berria, bai birgaitu ondoren sortutakoa, datozen 15 urteetan, 42.000 etxebizitza berriak sortuz. Adierazle hori orientagarria da (ez-arauemailea, babes publikoko etxebizitzei esleitutakoen kasuan ez bezala).


ibilbide-orria

Lehenengo 3 helburu kuantitatiboetarako, ibilbide-orri bat ezarri da, bitarteko helburu hauekin:


Babestutako alokairuko parkeko eta babestutako etxebizitzaren guztizko kopurua



Birgaitzearen urteko ratioa




Birgaitutako etxebizitza kopurua




Era berean, lurraldetuko objektiboak ezarri dira lehen 3 helburu kuantitatiboetarako


### Babestutako alokairu-parkeko etxebizitza-kopurua



### Parke babestuko etxebizitzaren kopurua, guztira




### Birgaitutako etxebizitza kopurua





Lehentasunezko  
jarduera-ildo eta  
-jarraibideak

5.



# Jarduera-ildo eta -jarraibideak

Ituna 2022-2036 aldian garatu beharreko 6 jarduera-ildo nagusiren inguruan egituratzen da. Jarduera-ildo horietatik 4 eragin zuzeneko ildoak dira, eta 2 zeharkako laguntza-ildoak, etxebizitzaren inguruko politika, programa eta zerbitzuetako gobernantza berri baterantz bideratua.

## Eragin zuzeneko 4 ildo

Etxebizitzan  
inbertsio  
handiagoa

### Etxebizitzan inbertsio handiagoa

Etxebizitzan  
gehiago  
inbertitzea  
pizgarrietan  
oinarritutako  
fiskalitatearen  
bidez

Dimentsio  
soziala

Etxebizitza-  
politikaren  
**dimentsio  
sozialean**  
sakontzen  
jarraitzea

Txertatzea  
orokortzea

### Txertatzea orokortzea

Etxebizitza  
udalaren  
agenda  
estrategikoan  
txertatzea  
orokortzea

Eraikuntzaren  
sektore  
erakargarria

### Eraikuntzaren sektore erakargarri,

lehiakor eta  
berritzailea  
osatzea

## Zeharkako laguntza 2 ildo

Datuen **inteligentzia** eta ebaluazio  
aurreratua

Udal  
estrategia

**Inplikazio eta lankidetz**a publikoa,  
pribatua eta soziala

Inplikazioa  
eta  
lankidetz

# 1. ildoa

Etxebizitzan  
gehiago inbertitzea  
pizgarrietan  
oinarritutako  
fiskalitatearen  
bidez

## Asmoa

Eragile sinatzaile guztiok uste dugu ezinbestekoa dela baliabide gehiago mobilizatzea etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzeko eta hari lotutako xedeak lortzeko helburua erdiesteko.

Gure ustez, baliabideak erabiltzea sozialki ezinbestekoa den inbertsioa da; eragin ekonomiko eta ingurumen-eragin handia du, eta ezinbestekoa da beharrezko baliabide-iturri guztiak ematea (publikoak, pribatuak eta sozialak) ikuspegi berritzailetik eta sustatzailetik.

Jarduera-ildo honek etxebizitza librearen eskaintza ere hartzen du barnean; eskaintzak euskal gizartearen aldaketa soziodemografikoei erantzun beharko die (piramide demografiko berria, mugikortasun profesional handiagoa, familia-eredu berriak...).

**2022-2036 aldian aplikatu beharreko lehentasunezko jarraibideak edo estrategiak**

Helburu hori erdiesteko, eragile sinatzaileok lehentasunezko jarraibide edo estrategien arabera jokatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1.1.- Etxebizitzako gastu publikoa pixkanaka igotzea, BPGd-ren % 1,5 ingurukoa izan arte, Europako herrialde aurreratuekin bat etorritz.

1.2.- Birgaikuntzako inbertsio pribatua pixkanaka igotzea, BPGd-ren % 5 ingurukoa izan arte, Europako herrialde aurreratuekin bat etorritz.

1.3.- Pizgarrietan oinarrituta eta definitutako lehentasun estrategikoekin erabat lerrokatuta dagoen eredu fiskal berri bat zehaztea eta ezartzea: baliabide pribatuak eta sozialak alokairu babestuko etxebizitzarantz mobilizatzea, deskarbonizatzea, irisgarritasuna...

1.4.- Eragile pribatu eta sozial berriak arrazoizko prezioa alokairuan eta birgaikuntzan ardatzutatako etxebizitzaren arloko jarduerak finantzatzeko.

1.5.- Etxebizitza babesturako lurzoru publikoaren erreserba estrategiko bat sortzea, arrazoizko prezioa alokairuaren eskaintza publikoa handitzeko helburua eraginkor bihurtzeko. Lurzoru-erreserba estrategiko hori zentzu zabalean ulertu beharko da, eta urbanizatuta dagoen lurzoru erabiltzea lehenetsiko du (etxebizitza-politikan jasangarritasunaren alde eginez); birgaitu beharreko eraikinak sar daitezke, aurretik solairu gisa erabiliak, eraikuntza berriak sortze aldera...

## 2. ildo

### Asmoa

Etxebizitza-politikaren dimentsio sozialean sakontzen jarraitzea

Eragile sinatzaileok uste dugu euskal etxebizitza-politikak batez ere helburu soziala izan behar duela. Etxebizitza pertsona guztien oinarrizko eskubide bat da, eta funtsezko elementua ere bai gazteak erabat gizartera daitezen, beren erantzukizun eta eskubideekin.

Horren harira, uste dugu ezinbestekoa dela arrazoizko prezioko etxebizitza eskuratzeko eskubidea eskubide subjektibo gisa garatzen eta hura eraginkor bihurtzeko beharrezko mekanismoak hobetzen jarraitzea.

**2022-2036 aldian aplikatu beharreko lehentasunezko jarraibideak edo estrategiak**

Helburu hori erdiesteko, eragile sinatzaileok lehentasunezko jarraibide edo estrategiak arabera jokatzeko konpromisoa hartzen dugu:

2.1.- Egoera ahulenean dauden taldeen etxebizitza-beharrei dagokienez etengabeko harremana izatea eta modu iraunkorrean aktiboki entzutea, talde horiekin lan egiten duten gizarte-erakundeekiko lankidetzara indartuz. Bereziki gazteekin harremanetan egotea eta haiek aktiboki entzutea.

2.2.- Bizigarritasunari, irisgarritasun unibertsalari, eraginkortasun energetikoari eta segurtasunari dagokienez egungo etxebizitzak duen kalitatea hobetzeko beharrezko araudia eta laguntza-neurriak garatzea.

2.3.- Etxebizitza-politika gainerako gizarte-politikekin (gizarte-zerbitzuak, gazteria, adinekoak, desgaitasuna, berdintasuna, enplegua...) hobe integra dadin lortzea, erantzun integralagoak ematen dituzten zerbitzu eta programak martxan jarrita. Hain zuzen ere, etxerik gabekoen arazoari, familia ugarienari eta batzuei erantzuteko modua hobetzea.

2.4.- Gazteen etxebizitzarako eskubidea bermatzeko neurriak indartzea, Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategian ezartzen den herrialde-mailako helburuaren harira; hau da, 2024an emantzipatzeko batez besteko adina (29 urte) 28ra murriztea 2030erako.

2.5.- Lankidetzara eta garapen komunitario handiagoan oinarrituta dauden etxebizitza eskuratzeko formula eraginkortasunez eta bizkorrago ezartzea; besteak beste, cohousing-a eta zuzkidura-bizitokiak.

2.6.- Aldizka, etxebizitzarako eskubidea eskubide subjektibo gisa konfiguratzeko aurrera egiteari buruzko ebaluazioak egitea, oztopo posibleak identifikatzeko eta beste irtenbide batzuk abiatzeko.

## 3. ildo

### Asmoa

Udal-agenda  
estrategikoan  
etxebizitza oro har  
sartzea

Eragile sinatzaileon ustez, etxebizitza-politikak, eraginkorra izan dadin, lurraldera hurbildu behar du, zalantzarik gabe, eskualde, udalerrri eta auzo bakoitzaren egoera zehatzari erantzuteko, bai etxebizitza arrazoizko prezioan eskuratzeari bai gure herri eta hiriak birgaitzeari dagokienez.

Egia da hiria birgaitzeko hirigintza-sozietate batzuek udal-esperientzia arrakastatsuak izan dituztela birgaitzearen eta berroneratzearen arloan. Hala ere, etxebizitza oraindik ez dago agenda estrategikoan erabat sartuta gizarte-politika eta lurralde-garapen jasangarri gisa Euskadiko toki-erakunde batzuetan. Horren harira, Itunak Etxebizitza Sailburuordetzaren eta euskal udalen arteko komunikazioa eta lankidetzaren indartzeko balio behar du, eta udalek etxebizitza-planak izan ditzaten orokortzeko ere bai, Itunean adostutako helburuak lortzen eta udalerrietan giza garapen jasangarria hobetzen lagun diezaieten.

#### 2022-2036 aldian aplikatu beharreko lehentasunezko jarraibideak edo estrategiak

Helburu hori erdiesteko, eragile sinatzaileok lehentasunezko jarraibide edo estrategien arabera jokatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- 3.1.- Tokiko etxebizitza-planak prestatzen laguntzeko ildo bat abiatzea. Plan horietan, egoera ahulenean dauden eta baliabide gutxien dituzten pertsonen arrazoizko prezioa etxebizitza eskuratzen laguntzera bideratutako jarduerak bilduko dira, baita birgaitzeko jarduerak sustatzera bideratutakoak ere, bereziki eraginkortasun energetikoa eta irisgarritasunean arreta jarrita.
- 3.2.- Etxebizitzan eragina duten gaiekin (hiri-plangintza eta -kudeaketa, gizarte-zerbitzuak, garapen sozioekonomikoa...) erlazionatutako udal-taldeak trebatzen eta haiei jardunbide egokiak kontsultatzen laguntzea.
- 3.3.- Euskadiko Hiri Agendaren (Bultzatu 2050) eta udal- eta eskualde-mailan ezartzen diren hiri-agenden arteko sinergiak garatzea.
- 3.4.- Etxebizitzaren arloko lurraldearen inteligentziarekin zerikusia duen guztian bereziki elkarlanean aritzea, administrazio guztietan erabilgarri dagoen informazioa partekatuz, lurraldeari eta bertan bizi diren pertsonen ahalik eta balio handiena ematen dieten etxebizitzari lotutako politika, programa eta zerbitzuak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko.

## 4. ildo

### Asmoa

Eraikuntzaren  
sektore erakargarri,  
lehiakor eta  
berritzailea osatzea

